

Maurizio Elizalde txistularia

Gure oroitzapen hunkigarria Maurizio Elizalde zenari, Euskalerriak izan duen txistulari aipagarrienetako bat. Gure adiskide eta maixu Baztango mutil-dantzetan. Maurizio zena Amiaruko Lizundegi-mendia baserrian sortu zen 1915-garren urtean Irailaren 22-an. Gero oraindik haurra zelarik Amiaruko baserria utzi eta Arizkongo Martintoneko bordara etorri zen famili guzia eta or egoitza berria harturik, Maurizio hemen ego-na da bere bizi guzian hil arte, nekazalgoan bere ogi-bidea izan zuelarik. Maurizio bere lengusina Silbestra Elizalde-rekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten, lau mutiko eta bi neskatiko. Orain biak zenduak baina Martintoneko bordak bizirik irautean du, hor dute beren etxea Maurizio eta Silbestarren ondorengoak.

Maurizio bere aitarengandik ikasi zituan orain dantzatzeko dugu mutil-dantzak eta gañerakoak ere. Antonio aitak berriz, lenagoko txistulari zaharretatik ikasiak. Haundia izan zen Maurizioaren aita baina semea ere aita bezala maixu eta dantzari. Hameka urtetan hasi omen zen bere aitarekin soñulari bezala. Txistularien munduan eta denok dakigun bezala lan izigarria egin zuen bere txistu yotzen atse-denik hartu gabu. Baztango herrietako bestetan soñulari aunitz urtez, erran dezakegu 65 urtez ari izana dela herri aunitzetako bestak alaitzen. Mutil-dantza erakusle, herri guztietara oñez harat-hunet-ak eginik, zer lanak eginen zituen. Arrigarria! Baztango Dantza-Taldeekin ere Euskalerrri guzian ibillia zen. Lantz-eko Inauterietan soñulari, eztaietan, omenaldietan, Meza Berrietan, Baztandaren Biltzarra egunean, Dantzari Txapelketetan soñulari bezala eta deitzen zuten toki guztietara, han zegoen gure Maurizio bere soñu alai eta gozoa-rekin ospakizuneri ohore haundia eman beharrez. Txistua irakasten



Maurizio Elizalde

ere aunitz urtez, erran dezakegu bizi guzia iragan duela Baztango Folklorearen serbitzuko. Aunitz zor diogu Maurizioari, zer dantzaldiak egin ote ditugun gure bizi guzian Maurizioaren Mutil-Dantzekin. Aitzion erran duten bezala gure Maurizio 1915 urtean sortu zen ea 1992-ko Aste Sainduan zendu zen.

Maurizio baditu yarraitzaleak eta dantza guziak menderatuak dauzkatenak, berak erein zuen haziak zitu ona eman du eta holaxe iraunen dute gure baztandar dantzak. Maurizioaren eginkizunak Baztango Folklorearen Kondairan idatzirik geldituko dira.

Maurizioaren oroitzapena geren bihotzetan kokaturik daukagu barraren barrenean sarturik eta gure adiskideaz oroitzen geran aldiero, badirudi soñu miresgarri bat entzuten dugula gure inguruan, Maurizioaren mutil-dantzaren soñu zoragarria da, Baztango mendieta-ko ohiartzunak ozenki errepikatzen duela, Hunkigarria!

Maurizio ere ARKUPEAK Elkar-teko bazkidea zen gu denok bezala eta bai ohorezko txistularia ere. Yaunak eman dezaiola betiko atse-dena.

M. Izeta

Berri ona

Gauzak aldatu bearra

«Zuen sinimena zalantzan egon ez dadin»

(Jn.15,26-27;26,12-15)

PENTEKOSTE jaia dugu gaur. Elizaren eguna. Espirituaren eguna. Elizak eta kristauok... badugu Espirituaren bearrik. Festa onen jiran eginen dute gure parroketan gazteek sendotza artzea. Gazteak pozik joaten dira elizkizunera. Iruditzen zaie asko ta askori (!). Urtebete, bi edo iru urteko prestaera egin ondoren (eta zenbait parroketan geiago ere bai) or dijoaz gazteak gotzaiarengana onek eskuak ezarri eta krismaz igurtzi ditzan. Normalean gustora eta pozik elkartzen dira astero-astero parrokan begiralearekin edo monitoreaekin dudak eta zalantzak argitzera; fedeaz eta elizaz itzegitera; Jesus-engan nola sinestu bear dan jakitera.

Espirituaz, ordea, gutxi itzegiten zaie; zailla zaie, beraz, Espiritua nor den jakitea. Eta Espiritua da Sendotzako sakramentuaren ardatza eta muina.

Sendotza artu aurretik eginen duten prestaeratik geiena gogoratzeko dutena elkarrekin eginen duten konbibiencia izaten da. Zaar-egoitzara edo ospitalera eginen duten bisitak ere naiko jota-uzten ditu gazteak.

Elizaren bearrik ez dute sentitzen. Kristau elkartea zer den ez dakite. Mezari ez diote zentzurik artzen. Aitortza ez dute begi onez jotzen. Apaiz eta erlijio kutsuko itza ez dute geiegi sinesten.

Askatasunez artu bear duten sakramentua da sendotzarena; anitz dira, ordea, gurasoek derrigortuta joaten direnak. Amonari edo aitona-ri disgustorik ez ematearren eginen dira bakarren batzuk.

Badira, erran dezagun egi, prestaera guztia egin ondoren sendotza ez artzea erabakitzen duten gazteak. Arrazoizko bidea eta jokabidea deritzat.

Ez dut errango nik astero-astero elkartzea interesgarria ez denik. Eskolan baiño geiago ornitzen da parrokan fede, bai orixe! Kuadrillan eta kalean eztabaidatzen ez dituzten gaietaz mintzo dira-billera oietan. Ala ta guztiz ere gauza asko aldatu bearra dago sendotzak eta fedeak eragin aundiagoa izan dezaten. Monitorea eta apaiz ardura-dunek sendotzako sakramentuagun sinismen aundia izan bear dute, elburuak ondo erabakita euki.

Sendotzako ardura daramatenak gazteak dituzten balore onak ikusten geiago saiatu bear dute eginen den lana probetxukoa gerta dadin.

Pentekoste jai onetan, urtean zear bezala, Espirituak argitu beza Eliza, argitu bitza kristauak eta gazteak.

Artzalluz'tar Joxemari

Guesalaz ibarrako abestia euskaraz

Guesalaz ibarra, Yerri ibaiaren eskubian dago, Lizarra'ko lurraldean. Gaur zarrak ez dute euskararik eginen. Bonaparte'n mapan, 1863'garren urtean, Guesalaz ibarraren iparaldean oraindik euskaraz eginen zuten. Nere gaurko berria auxe da: Guesalaz'ko aiton zar baten aotik, errian ikasitako aintziñako abesti bat entzun dugula.

Aingeru Sada Lizarra'ko apezak berria eman zidan: «Bertan bizi da Guesalaz'ko aiton bat eta erdieuskarazko abesti zar bat oso gogotik abestutzen du». Zuzenbidea artuta aitonaren billa, berealaxe joan nintzen. Orain Lizarra'n bizi da, izena berriz Tiburzio Larreta Ibarrola dauka, larogei ta amairu urte ditu; 1901'garren urtean Muniain (Guesalaz) errixkan jaio zen Damien etxean. Aiton amona Oltzar eta Ibarrola etxe-koak zituen. Ogeitabi urteak bete arte emen bizi zen. Amairu urte zitula gaztetxoak Gabonetan biltzen ziren eta errian etxez etxe zebiltzen puxken billa. Errosario ondolik izaten zen. Makil batekin atea jotzen zuten eta abesten asten ziren:

«Los de la(n) gogona sartu dek jaun ona enguedek (engelek) dantzari artua pilari

argi argi lizendio (egiten dio) luzio jaun ori enguegalera (enguelek galdetu) lizarra

etxo kandido (etxeakoandre) bea (obea)

Estamos cuatro y entraremos dos una limosnica baskon».


Tako tarteko itzak gureak dire:

orrek itz batzuen illuntasuna asmatu nai genuke.

Gure aitonak ez daki euskaraz.

Aurak ori abesten zutela etzekiten euskaraz. Oitura zarrari eustegatik buruz ikasten zuten, itzen errannaia zer zen jakin gabe.

Abesti au ez da nolanaikoa, jai legenaren oñarriak ditu. Euskal lege zar zarraren aztarnak ortxen ditugu. Lagogona izen ori Eguberriko giroarekin lotua dago. Izan leike, aitona entzunez, itz ori lan



Tiburzio Larreta Ibarrola

gogona izatea. Orduan lan gogona itz orrek auzolanarekin zerbait ikusi bear luke. Erriaren alde eginen den lan ori elkarteko ekintza berexi bat litzake eta asiera jaialdi nagusi batekin ematen zaiona. Iru gai nagusiak elkartuak ditugu; erriko eginkizunetan gastetxoaren sarrera, mezua edo deia abestua ta jaldia. Gaztetxoak, etxez etxe biltzen zituzten puxkekin afari bat eginen zuten. Erriko oitura nagusi-ekin lotua dago ekintza berexi au. Naiz erraten zutena ez ulertu, afaldu nai ba zuten, abestu bearra zeukaten. 1914'garren urtean Muniain'en (Guesalaz) gure aitonak, Tiburzio Larretak bertekin batean eginen zuna, gaur oraindik, ori bera abesten du. Gauza zoragarria.

Bertze berri ederra ematen digu abesti orrek; azkeneko itza. «Baskon» itz orrek ba du bere mamia. Laburpen bat da; «Basoko ona»

erran nai du. «Basaburua» ta «Basoko» izenak euskal menditarrek ontzaz artuak zeuzkaten. «Basoko» izenari emen «ona» atxiki diote ta laburtua «Baskon» gelditu da. Izen ori zarra dugu; erromatarrek ezagutzen zuten. Bertakoa bezala euskaraz Guesalaz'en artzea, orixe da arrigarria.

Xetasun guzti auegatik, abesti au bitxi bat da. Gañera Nafarroa'ko kantu zarren zerrenda aberas-tutzen du. Au bakarrik ezagutzen dugu Guesalaz ibarran egiña. Oregatik bitxi bat dugu.

Tiburzio Larretak bi sema apaiz ditu. «Zuen aita, kantu zar ori abestutzen —bideo— tresnarekin artu bear zenukete», erran nien. Bearrezko ekintza da.

Zeiñen ederra ta aberatsa den Nafarroa'ko euskal arnasa ongui ulertzeko, ortxen dugu Guesalaz'ko kantu zarra.

Latzaga

Emakumezkoad teologia ikasten

Azken-aldi ontan emakumeak teologia ikasten asi zaizkigu.

Ez da denbora asko gure izparringi ontan, «Diario de Navarra» edo «Nafarroa'ko Egunkari» ontan bertan irakurri dutala, Iruña'n, Nafarroa'ko Unibersitatean teologiari-buruz, garrantzi aundiko aste osoa iraun dun Batzarre bat egin dela.

Eun da berrogei t'amar teologi-lari jakintsu bildu omen dire batzarre ortan; batzuk, Europa'ko lurralde ezberdiñetatik etorriak. Eta baita Ameriketatik ere.

Ta, -zarrituko ote zera?, Iruña'n Jainkoari-buruzko arazoak eta auziak aztertzeke eta iraultzeke bildu diren teologilari oietatik bat beñio geiago, emakumeak izen dire!

Nere adiskide Patxi'k au irakurtzen dunean, entzuten diotela iduritzen zait nola asiko zaiten oiuka:

- «Irauli» esan duzu? Eta emakumezkoad bildu direla? Egon zin dezke ziur batzarre ortan bi emakumezko beñio geiago alkartu ba'dire, aurrean jarri zaien guztia irauliko zutela. Baita Jainkoa berberaren gauzak ere. Saltsera izugarriak bait dire emakumeak!

Ezetx erantzun bearko diot Patxi nere adiskideari. «Saltsa» ta ixtillu sortze ortan aski berdiñak direla emakumezko eta gizonezkoak. Emakume batzuk direla istillu sortzailleak, bañan ez denak. Eta ori qertatzen dela gizonezkoen artean

ere.

- Baña, baña... Teologia ikaste ori ez al da apezzen eginkizuna? Emakumeak teologia ikasten astea, ongi dagon gauza al da? galdetuko dit, agian, beste Patxirenbatek Aztertuko dugu ongi dagon edo ez, baña egi da beintzat gero ta geiago direla, doktoradutza iriste-ko asmoarekin gañera, teologia ikasten ari diren emakumezkoak. Monjak, eta monja ez direnak.

Teologi-Fakultatea badun Euskalerrriko seminario batean, bertako apaiz eta praillegaiak aiña dire teologia ikaste ari diren emakumezkoak.

Seminario ortan esaten zidan eranegun bertan oraindik, neskatz gazte batek:

- Batxilleratoa bukatuta, joan den urtean egin dut «Cou». Orain teologi-ikasketaren aurreneko kurtsioan nago. Lizentziatura lortzen dutanean, doktoradutza eginen asiko naiz.

- Nola arraio gogoratu zaio zu bezalako neska polit bati teologia ikasten astea?

- Aurrena, kristaua naizelako, eta nere sinispidea sakondu nai dutalako. Gero... bein doktoradutza egiñez gero, Teologian Doktore, eta gañera, zuk diozun bezala neska polita ba'naiz, errez billatuko dut edozein ikastetxean erlijio-erakusketan lan egiteko tokia. Beste edozein gauza erakusten asteko,

ez nuke orrelako erreztasunik aurkituko, beste gauza oiek danak erakusteko tokia billa, millaka bait dire lanik gabe dauden erakusleak.

- Bapo, neskato! Ez dun gaizki pentsatu.

Teologia, -Euskeraz «Jainkiztia»-, «Jainkoak erakutsi digunaren jakintza» da, eta Jainkoak bere izaeraz eta berak egin duan oroz erakut-si duguna egunetik egunera obeki ezagutzen saiatzea, kristau guztion eginkizunik garrantzitsua da.

Gutxienez, kristau guztiok gauden Dotriña ikastera beartuak. Gero, Dotriñean ikasitako ori sakontzeko ipiñi ditu Elizak mezako irakurgaiak, eta Apezaren omilia, ots, sermoia.

Ortik aurrera jarraitzeko egokitasuna dutenek, ederki egingo dute teologia ikasten astea. Batez ere, beren bizitza Jainkoari osoan eskeñi diotenek. Monjak, adibidez. Baña baita kristau soillek ere. Apezak gutxi zaizkigun une ontan, al nolako zoriona izengo litzaken Ama Elizarentzat, mundu guztian, erlijioa ikastetxeetan erakusteko, Teologia lizentziatura edo doktoradutza irabazi duten emakumezko edo gizoneko talde ugari bat errialde guztietan izango ba'lu.

Latiegi'tar Bixente